



HERRIKO KONTSEILUKO ERABAKIA ORTZAIZEKO HERRIA

2024ko apirilaren 30eko bilkura

Bi mila eta hogeita lauko apirilaren hogeitahamarrean, arratseko zortziak eta erditan, Ortzaizeko Herri Biltzarra ohi bezala deitua izan-eta, legeak behartzen duen kopuruan bildu da, biltzarren ohiko lekuan, Jean-Marc OÇAFRAIN auzapeza lehendakari izanik,

Hor zirenak : CASIRIAIN Elena, CHAMALBIDE Corinne, DACHAGUER Peio, FALXA Odile, GOICOECHEA Iñaki, HEGUY Antton, IÑARRA François, IRIART Jean Claude, JORAJURIA Ramuntxo, LEKUMBERRY Xantxo, MATEO Jean François, OÇAFRAIN Jean-Marc, PERUSANSENA Elodie.

Barkatuak zirenak : AYÇAGUER Elorri, IDIART Claudine.

Bilkurako idazkari izendatua izan da : FALXA Odile.

Deialdiaren eguna : 2024ko apirilaren 26a

Afitzatze eguna : 2024ko apirilaren 26a

2. ERABAKIA: HERRIKO LUR SAIL BAT EUSKAL HIRIGUNE ELKARGOARI SALTZEA

(3.2 nomenklatura)

Auzapezak azaldu du herria honako lur sailaren jabe dela Iraordoki deitu lekuan: 3 026 m²ko F-1219 saila.

Gahardu auzoko etxeetako ur zikinen araztegia, F1219 lur sailean kokatua, Euskal Hirigune Elkargoko Ur Edangarriaren eta Saneamenduaren zerbitzuaren esku utzi zen 2018tik goiti. Izan ere, urte hartan Euskal Elkargora transferitu ziren herrietako ur eta saneamendu eskumenak.

Ondorioz, Euskal Elkargoko zerbitzuek herriko lur sailetan dauden bi araztegiak ustiatzen dituzte. Horiek horrela, Euskal Elkargoak purguko araztegiko isurkinak Gahardukora bideratzeko asmoa du, eta horretarako bigarrenaren lur azalera bikoiztu behar du.

Euskal Elkargoko zerbitzuek F 1219 saileko 414 m²ko azalera eskuratzeko xedea adierazi dute, existitzen den araztegiaren jarraitasunean eta m² bakoitzeko 32 €ko prezioan.

Bestalde, Auzapezak zehaztu du pasaia eskubide bat nahi duela, herriko zerbitzuek eta suhiltzaileek suteen kontrako ur-biltegirako sarbide ukan dezaten.

Auzapezaren azalpenak entzunik eta eztabaidaturik, Herri Biltzarrak,

- **ERABAKI DU**, F 1219 lur saileko 414 m² Euskal Elkargoari saltzea, m² bakoitzeko 32 eurotan.
- **ERABAKI DU**, F 1219 lur sailean pasaia eskubide administratibo bat ezartzea suteen

kontrako ur-biltegi malgurako sarbide gisa.

- **ZEHAZTU DU**, geometro eta agiri gastuak eroslearen gain izanen direla.
- **AGINDU DIO**, Auzapezari ekintza horren burutzeko behar diren izapide guzien egitea.

Kide kopurua : 15

Hor zirenen kopurua : 13

Balitzko boz kopurua : 13

ALDE : 13

KONTRA : 0

ABSTENTZIO : 0

Gorago eman egun, hilabete eta urtean, presente ziren kideek erregistroa izenpetu dute.
Laburpen egiaztatuaren baliokoa.

ORTZAIZEN, 2024ko apirilaren 30an,

Auzapeza,
Jean-Marc OÇAFRAIN

Betegarria bilakatu den akta,
2024/05/14an publikatu edo notifikatu ondoan,
Eta Prefeturan pausatu ondoan 2024/05/14an.